

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektuak arrakasta izan dezan honelako Baliabide antolamenduak egingo ditugu.

- Lehenik eta behin, baliabide fisiko bezela, lokal bat alokatuko dugu bertan lan egin dezagun. Lokalean ordenagailuak erabiliko ditugu gure Webgunea sortzeko, diseinatzeko, bezeroekin harremanetan jartzeko (emailen bidez), etab. Bestalde, telefonoa ere edukiko dugu, lehen aipatu bezela, bezeroekin harremanetan jartzeko. Lokala Lasarteko erdigunean kokatuko da taldeko kide baten familiak duen lokal batean. Horrek suposatuko du prezioa merkeago izateak.
- Baliabide intelektual eta giza baliabide bezela, gure lokalean edukiko ditugun laguntzaileak eta langileak izango dira (gure proiektua aurrera emateko gai izango direnak). Alde batetik, diseinadorea, gure katalizadorearen modeloa eta irudiak sortuko dituenak, hau da, modeloa konkretuki azalduko duena. Diseinadorearekin batera injenieritza elektromekanikoan oinarrituta dagoen pertsona bat egongo da, ea modeloa bideragarria den edo ez ohartarazteko diseinatzaileari. Bestetik, lege natural eta automotrizetan oinarrituta dagoen aholkularia, gure katalizadorea legala den edo ez azal dezan. Webgunea eta bezeroekin harremanetan egongo direnak gu geu izango gara, bertan ahalik eta hoberen gure produktua azaltzeaz amaituko dugu eta marketing estrategia moduan gure produktua erosi dezaten lortzeko helburua izango dugu.
- Bestalde, finantza-baliabide bezela ekonomia enpresarialetan oinarrituta dagoen aholkulari bat edukiko dugu, gure sarrerak eta irteerak kudeatzen lagunduko diguena eta gure proiektua ahalik eta etekin eta sarrera gehien eduki dezan lagunduko diguena.

